

“Donostia Meeting Minds” lehiaketaren oinarriak

Lehiaketa hau adimen artifizialaren aplikazioan oinarritutako bi kategorien inguruan egituratuta dago:

Hiri kategoria – Adimen Artifiziala eta Inpaktu Soziala Donostian, gizarte erronkei (osasuna, ingurumena, inklusioa eta hezkuntza) helduko dieten konponbideak garatzera bideratua.

Enpresa kategoria – Enpresari, Ekintzailetzari eta Ikerketari aplikatutako AA; logistika, finantzak, energia eta era horretako esparruetan enpresak optimizatzeko irtenbideetan oinarritua.

Inpaktua, bideragarritasuna eta gaitasun eraldatzailea erakusten dituzten proiektu berritzaileak dituzte xede bi kategoria hauek.

Parte hartzaileak eta lehiaketaren egitura

Lehiaketa edozein diziplina eta herrialdeko gradu, master eta doktoregoko unibertsitarioei zuzenduta dago. Parte hartzea doakoa da eta 2 eta 4 pertsona arteko taldeetan egingo da. Lehiaketak hiru fase izango ditu:

1. fasea – Deialdia eta proiektuen aurkezpena (maiatzaren 15etik urriaren 11ra): taldeek proposamenak aurkeztu beharko dituzte PDF formatuan, azalpen bideo batekin batera. Fase honetan, erakunde sustatzaileek tailerrak eta laguntza-saioak eskainiko dituzte, taldeei ideia definitzen eta teknikoki garatzen laguntzeko.

Proposamenak info@donostiameetingminds.com helbidera bidaliko dira

2. fasea – Finalisten ebaluazioa eta hautaketa (urriaren 13tik 14ra): diziplina anitzeko epaimahai (akademiko, instituzional eta enpresarial) batek 8 proiektu finalista aukeratu ditu gehienez, ondoko irizpideak oinarri hartuta: berrikuntza eta originaltasuna, bideragarritasun teknikoa, inpaktua eta potentziala, argitasuna eta komunikazioa, egingarritasuna eta jasagarritasuna.

3. fasea – Aurrez aurreko final handia (azaroaren 2a) Donostian. Talde finalistek 5 minutu izango dituzte proiektuak defendatzeko, eta 3 minutu epaimahai profesionalak egindako galderei erantzuteko.

Sariak eta nazioarteko proiektzioa

Kategoria bakoitzeko talde irabazleek Bostonera bidaia bat jasoko dute sari gisa, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloan erreferentzia diren erakundeak bisitatzeko; horrela, lehiaketaren nazioarteko dimentsioa indartu eta prestakuntza-balio handiko esperientzia bat eskainiko da. Horrez gain, hainbat aintzatespen eta opari banatuko dira parte hartzen duten taldeen artean.